


ASTEROIDEEN

MEHATXUA

Jesus Arregi

IAZKO abuztuan 1989 FC 29. aleko gure atalean horren berri ematearekin batera horrelako gorputzaren kolpeak Lurrean eragingo zukeen hondamena ere deskribatu genuen. Adibide gisa, dinosauruen desagertzea azaltzeko teoria ere aipatu genuen. Dirudienez, meteorito baten tal-



Asteroideen mehatxuari aurre egiteko "Project Spacewatch" martxan jartzea komenigarria da. Besteak beste, radarrak erabil daitezke zeregin horretan

EFEMERIDEAK

EGUZKIA:

Urriaren 23an Scorpius-en sartzen da.

ILARGIA: Urriaren 4ean
Urriaren 11n
Urriaren 18an
Urriaren 26an

PLANETAK:

MERKURIO:

Iraileko azkeneko egunetan bezala, urriko lehenengo astean ikusi ahal izango dugu; nahikoa argitsu, goizaldera, Eguzkia atera baino ordubete lehenago edo.

ARTIZARRA:

Uda osoan egunsentia baino lehenago agertu eta Eguzkia atera arte ikusi ahal izan badugu ere, udazkenaren hasierarekin horizontean ezkutatuko zaigu goi-konjuntzioko posizioerantz doalarik. Beraz, ezingo dugu ikusi.

MARTITZ:

Urriaren zehar oso ondo ikusi ahal izango dugu; argitsu eta Lurretik geroago eta hurbilago. Gero eta lehenago agertuko da, hala nola, urriaren hasieran 21-ak (UT) alderako agertuko da, eta hilaren azken aldera bi ordu lehenago, ilundu orduko. Taurus Konstelazioan aurkituko dugu.

JUPITER:

Gero eta lehenago agertuko da, oso argitsu, Cancer Konstelazioan. Urriaren azken aldera 23 h 30 m-ak (UT) aldera agertuko da.

SATURNO:

Ilundu orduko Sagitarius Konstelazioan ikusi ahal izango dugu, baina horizontetik gero eta hurbilago. Urriaren hasieran 23 h-etan (UT) eta bukaeran 21 h 20 m-etan (UT) ezkutatuko da.

kak harrotutako hautsak eragin-dako negu luzea izan zen dinosaurusuak desagertzearen arrazoia (orain dela 65 milioi urte, Lurrean 100 milioi urte baino gehiago bizi ondoren).

ARTIKULU berean, 1989 FC asteroidearen orbitari buruz eginiko azterketa batzuen berri ere ematen genuen. Ondorioak nahikoa kezagarriak ziren, asteroideak Lurrarekin talka egin lezakeela baieztatu zutelako. Kasu konkretu hau aipatu ez badute ere, Clark Chapman eta David Morrison (*Cosmic Catastrophes* liburuaren egileak) arazo honetaz aritu dira artikulu batean. Beren ustez, Lurretik zibilizazioa desagertetaz lezakeen honelako "istripua" aurrikustearen beharra ez dago behar duen tokian nazio eta nazioarteko lehenetasunen zerrendan.

1980ko ekainean NASAREN Advisory Council delakoak antolatutako symposiumean, besteak beste arazo hau eztabaidatu zen. Hurrengo urtean Jet Propulsion Laboratory-ri eskatutako azterketa baten emaitzak aurkeztu ziren. Emaitzetan honako hau nabarmen dezakegu: guretzat erabat ondorio hondagarriak izango litzukeen talka gertatzeko urteroko probabilitatea hirurehun milatik batekoa da (pixka bat handiagoa ere izan liteke, edo kasurik baikorrenean, milioitik batekoa). Beste ere batera esanda, pertsona baten bizitzaren batezbesteko denboran talka gertatzeko aukera sei milatik batekoa da. Datu hauek Lurraren osotasunari dagozkio, baina honelako katastrofea gertatuz gero, denok izango ginatuz kaltetuak, talkaren ondoriz hil ala ez. Horregatik pertsona bakar batek honelako hondamenean parte izateko duen

probabilitatea uste baino handiagoa da. Adibidez, gutxi gorabehera, elektrokuzioz hiltzekoaren bestekoa da, edota hegazkin-istripuz hiltzekoa baino zenbait aldiz handiagoa. Beraz, gezurra badirudi ere, ez dira edonola arbuizatzeko zerbakiak.

JET Propulsion Laboratory-
k eginiko kalkulu hauek, NASAK aipatutako symposiumaren ondorioz martxan jartzea proposatu zuen "Project Spacewatch"en lehenengo pausoa izan ziren. Helburua Lurrari mehatxu egin liezaioketen asteroide eta kometak aurkitzeko gai liratekeen radar eta teleskopio optikoak eraikitzea zen. Bigarren pausoa, noski, erantzun-sistema diseinatzea izango litzateke. Talka posiblearen aurrean gorputzarekin topo egin beharko lukeen misio espaziala bidali beharko litzateke, astroa talka-ibilbidetik desbideratzeko (saihetsean bonba lehertezaz agian).

ARAZOA erabat premiazkotzat hartu beharrik ez badago ere, gehiegi luzatu gabe aztertu beharrekoa da. Lehenengo eta behin, bultzada berria eman beharko litzaiotzate Project Spacewatch-i. Hasiere batean jotzaila posibleak aurkitzeko sistemak garatzeko eta ondoren, eraso saihesteko metodarik egokiena zein den argitzeko.

AIPATUTAKO zientzilarien ustez, etxeko suteen aurkako aseguruak kontratatzeari edo loteria jokatzeari interesgarri baderitzogu, guztiz logikoa da zerutik etor lekigukeen erasoari aurre egiteko inbertitzea. 